



HELGARritasun numerikoa



LAGUNTZA


Ingeniaritzan: helgarritasunerako misioak Herriko Etxeak laguntzen ditu arazko betebeharrak betetzen.

Teknikan: Elgarweb izeneko urrikako tresna numeriko bat haien eskuko ezartzea, webgune helgarri bat sor dezaten.

Formakuntzan: bulego-dokumentu helgarriak sortu eta horretan laguntzeko formakuntza.

Diru mailan: Elgarweb-en parte hartze-funtsa 5.000 biztanletik beherako udalerriek eskura dezakete. Gastuaren % 50erainoko dirulaguntza eskuratzeko ahala ematen du. Proiektu bakoitzeko 2.000 €-koa da gehienez. Elgarweb tresnatik sortutako webguneei bakarrik aplikatzen zaie.

APLIKAZIO-EREMUAK



Informazio mota orori buruzko jendearendako lineako komunikazio-zerbitzu guztiak: webguneak, intranet, extranet, enpresa-softwareak, sakelako mugikorraren aplikazioak, hiri-altzari numerikoak eta abar.

BERRIAK



- 2023/09/06ko 2023-859 ordenantza
- Estatuak kontrolatu eta zigortzeko -50.000 €-rainoko isuna- ahala ematen dio ARCOMeri, Helgarritasuna Hobetzeko Araudi Orokorra aplikatzen ez bada.

anBIZIOa

Erabiltzaile bakoitzari manera balios eta praktikoan informatzeko ahala ematea.



BETEBEHARRAK



- Helgarritasun-deklarazioa argitaratzea,
- Numerikoaren gida-eskema bat eta hiru urte arteko ekintza-plan bat idaztea.
- Jendearendako lineako edozein komunikazio-zerbitzuren hasierako orrian argiki irakur daitekeen ohar bat agertzea, webgunearen arauen araberkotasuna (ala ez) adierazten duena.
- Helgarritasunari buruzko web-orri bat sortzea, berehala joan ahal izateko zerbitzuaren helgarritasun-adierazpena, numerikoaren gida-eskemara, urteko ekintza-planera eta zerbitzuaren helgarritasun-arauak betetzen ez direla seinaltatzeko erabiltzaileendako formulario batera.



ELGARWEB TRENSA

Balioak: lurralde-elkartasuna, helgarritasun unibertetsala, urritasun numerikoa, autonomia.

• Elgarweb Herriko Etxeek sortua da Herriko Etxeentzat, helgarritasunerako misioaren laguntzari esker. Euskal Elkargoak bermatzen ditu bere iraunkortasuna, ostatatzea eta mantentzea.

• Elgarweb diseinatua da Herriko Etxeko idazkariek edo hautetsiek aiseago kudea dezaten, eta ondorioz Herriko Etxeak erabat autonomoak izan daitezzen beren webgunearen kudeaketan.

• Elgarwebek herriko webgune bat sortzeko ahala ematen du, osoki pertsonalizagarria, helgarria, ekologikoa eta merkeagoa (web-orrien sorkuntza, pertsonalizazio grafikoa, edukien integrazioa).

• Elgarwebek denen beharrei erantzuten dieten askotariko funtzionalitateak eskaintzen ditu: berriak, agenda, aurkitekijak (saltegia, elkarteak eta abar) eta argitalpenak (erabakiak, herriko kontseiluen bilkura agiriak). Herri bakoitzak hautatzen du bere webgunearen edukia zein izanen den eta webgune hori elebiduna izan behar den ala ez.

*Elgarweb-ek -Herriko Etxeen eskura ezarritako plataformak- eskaintzen dituen aukera guzietan buruzko informazio gehiago:
<https://www.elgarweb.fr/>*

Beraz, nola da Elgarweb? Elkarren iritziak trukatu jadaneko Elgarweb erabili duten Herriko Etxeekin: Ziburu, Lehentze, Senpere, Ainhoa, Azkaine, Milafranga eta abar.

HARREMANETARAKO:

- Claudine CELHAIGUIBEL: 06 13 93 67 50
c.celhaiguibel@communaute-paysbasque.fr
- Claire SARTHOU: 06 48 51 13 29
c.sarthou@communaute-paysbasque.fr